

ALARGUNAK, PENTSIÓ DUINEN ESKE

·Zuek bai jakin!: Valentin Berriotxoá ·Elkarrizketa: Itziar Sasieta - Xabier Arratibel

·Izerdi patsetan: Juanjo Igarzabal ·Boteprontoan: Igor Susaeta

# Herri Aldizkaria Otamotz

2008ko

maiatza

137. alea





Construcciones

# MENDIOLA

Labeaga, 9- Tf. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10  
20700 URRETXU (Gipuzkoa)  
E-mail: mendiola@cmendiola.com  
[www.cmendiola.com](http://www.cmendiola.com)

Etxebiziten  
eraikuntza

Industria  
pabilioiak

Urbanizazio  
lanak

Legazpiko Olazabal Institutuaren  
ondoan **6 chalet adosaturen**  
eraikuntza berria

**Argitaratzailea:** Zintzo Mintzo. Labeaga 12, Urretxu. 943 03 64 74 **Koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldua **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Azaleko argazkia:** Gotzon Aranburu **Banaketa:** Aintzane Arizmendiarieta **Publizitatea:** Iker Telletxea - 647 319 757 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 1.500 ale **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik

## aurkibidea

- 04 Hilabete honetako gaia**  
Alargunak, pentsio duinen eske
- 08 Elkarrizketa**  
Itziar Sasieta
- 10 Komikia / Egurra partitzen**
- 11 Zenbat buru, hainbat aburu**  
Zer iritzi duzu alargunen pentsioen auziaz?
- 12 Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**
- 13 Argazki zaharra**
- 15 Gure gomendioa**
- 16 Klik eta klik**  
Gotzon Aranburu
- 18 Zuek bai jakin!**  
Valentin Berriotxo
- 23 Elkarrizketa**  
Xabier Arratibel (Urola Garaia: zer da eta nora doa?)
- 26 Izerdi patsetan**  
Juanjo Igarzabal: Aizkorriko maratoirako prest
- 28 Gure aholkuak**
- 29 Literatura**
- 30 Boteprotoan**  
Igor Susaeta



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du.

# Alargunak, pentsio duinen eske

*Askotan beste alde batera begiratzeko joera badugu ere, gure artean bada pobrezia egoeran bizi den jendea. Horien artean bereziki tristea da bizitza osoa lanean eman ondoren azken urteak bizi-baldintza kaxkarretan igaro behar dituztenen kasua. Asko emakumezko alargunak dira. Euren alde lan egiten duen Appalur elkarteko Jose Mari Azkaraterekin eta hiru alargunekin hitz egin dugu auzi honi buruz.*

Bittori Gartzia, Jose Mari Azkarate, Rosario Suarez eta Cecilia Perez, Zintzo-Mintzoren egoitzaren kanpoaldean.




## Jose Mari Azkarate: “Alargun askok arratsaldeko seietarako ohera joan beharra dute, ez baitute berogailua ordaintzeko dirurik”

Appalur elkarteak Urola Garaiko pentsionistak, aurretik erretiratuak eta alargunak biltzen ditu. 340 bazkide ditu. Gipuzkoan aipatutako giza taldeen eskaerez ardurazten diren zazpi talde daude. Gainontzekoak Irun, Pasaia, Donostia, Tolosa, Oñati eta Eibarren daude. Hauek guztiak Afevas Euskadiko federazioaren adarrak dira.

Azkaratek aipatu duenez, elkarte hauek guztiak 90eko hamarkadan sortu ziren. Izan ere, garai hartan pentsioetan aldaketak eman ziren. “Felipe Gonzalez Espainiako presidentea eta Carlos Solchaga nafarra ministroa zirela, pentsioak murriztu egin ziren. Ordura arte alargunek senarraren pentsioa eta eurei zegokiena kobratzen zuten eta ordutik aurrera, berriz, senarrarena bakarrik”.

Bestalde, Appalurreko kideak euretako askok lan egiten zutenean kobratzen zutena baino askoz ere gutxiago jasotzen dutela kontuan hartu behar dela dio. “Lanpostu murrizketa izan zen eta 46 urte-tan lan egin eta kotizatu ondoren, pentsioen oinarri arautzailearen %60arekin gelditu nintzen. Sindikatuek ez gaituzte sekula defendatu: beraientzat hilda gaude, dagoeneko ezin baitiegu botorik eman”, dio amorruez.

Azkarateren eta bere kideen eskaera aurretik erretiratuak, 65 urte bete ondoren, %100 kobratzea da. Baita alargunen egoera hobetzea ere. “Alargunen egoera gurea baino okerragoa da. Honetan lanean hasi ginenean euren senarren pen-



tsioen oinarri arautzailearen %45 kobratzen zuten. Guk %70 eskatzen dugu beraientzat”, esan du.

Appalurrek eta gainontzeko elkarteek hobekuntza batzuk lortu dituzte dagoeneko. “Duela urte batzuk alargunek %46 kobratzea lortu genuen. Puntu bakarreko igoera da, baina oso garrantzitsua. Izan ere, estatuari borroka irabazi dion gura esan nahi du. Egun %52 ari dira kobratzen”, azaldu du.

Dena den, garai bateko pentsioak oso txikiak zirenez, askok hutsaren hurrengo jasotzen dute. “Gutxienekoa 493 eurotan dago jarrita eta askok hori kobratzen dute, senarraren pentsioaren %52a kopuru hori baino baxuagoa baita. Askok arratsaldeko seietarako ohera joan beharra dute, ez baitute

berogailua ordaintzeko dirurik. Senarra hil ondoren aho bat itxi da, baina lehenago zituzten gastu asko dituzte: zergak, ura, argindarra... Estatu espainiarrean 1.200.000 lagun inguru daude egoera horretan eta Esperanza Agirrek hilean 6.000 euroekin ez zuela nahikoa esan zuen!”, aipatu du Azkaratek.

Kotizatu zutenei dagokienez, euren egoera hobetu egin da. Izan ere, berriro ere bi pentsioak kobratzen dituzte: alarguntasunarena eta eurek kotizatu zutenaren arabera. Dena den, topea jarri zaie: 877 euro. Hala ere, Azkarate baikorra da eta euren aldarrikapen guztiak lortuko dituztela dio. Duela gutxi alargun guztiak gutxienez 600 euro kobratzea lortu dute. Ekainetik aurrera Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak kopuru horretara heltzeko falta zaiena ordainduko diete.

Dena den, dagoeneko jende asko bidean geratu dela gogoratu nahi du. “Alargun merkeak poliki-poliki hiltzen ari dira eta gobernuari doan aterako zaizkio. Zertarako daude, jendearen alde lan egiteko edo euren poltsikoak betetzeko? Euren helburua azken hau dela uste dut. Dirua pentsio-fondoetan sartzeko esan digute, baina diru hori erabiltzeko ordua heltzen denean kendu egiten digute: nik urtean 13.000 euro irabazten ditut, baina deklarazioa egiteko orduan ordaindu egin behar dut eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga (PFEZ edo IRPF) igo egin digute. Alargunei berbera egiten diete”.

## Cecilia Perez, Bittori Gartzia eta Rosario Suarez: Hiru alargun eta pentsioek eragindako hamaika gabezia

Alargunek bizi duten egoeraren berri izateko onena eurekin hitz egitea da. Hiru lagun Zintzo-Mintzoren egoitzara etorri ziren euren eguneroko bizitzaren berri ematera: Cecilia Perez eta Bittori Gartzia legazpiarrak eta Rosario Suarez urretxuarra. Perezek 87 urte ditu eta duela 30 urte baino gehiago gelditu zen alargun. Gartziak 60 urte ditu eta 11 daramatza alargun. Suarezek 69 urte ditu eta iaz gelditu zen alargun. Bizitza osoa lanean eman ondoren, hileko azken egunak kobratzeko egunaren zain ematen dituzte. Perezek, familia aurrera ateratzeaz gain, etxetik kanpo lan egin zuen. “Legazpiko etxe guztietako zoruak garbitu ditut, baina kontraturik gabe lan egin dut eta ez dut ezer kotizatu”, dio. Gartziak ere ez zuen kotizatzerik izan. “Kantabriarra naiz jatorriz, San Vicente de la Barquerakoa, eta arrantzarako sareak josten lan egin nuen. Aitarentzat egiten nuenez, ez zidaten ordaintzen”.

Suarezek ere etxetik kanpo lan egin zuen. “Zaharrak zaindu nituen eta urte horietan kotizatu egin nuen, baina alargun gelditu nintzenez nire pentsioa galdu nuen. Senarrarenaren hiru laurdenekin gelditu nintzen”, azaldu du.

Jose Mari Azkaratek ondo ezagutzen zuen du hiru emakume hauen errealitatea. “Bakoitzak pentsio mota bat du. Cecilia da estatuari merkeen ateratzen zaiona. Izan ere, bere senarra aspaldi hil zen eta garai hartako oinarri arautzailea oso txikia zen. 525 euro kobratzen ditu eta



### **Cecilia Perez:**

*“525 euroekin zerga guztiak ordaindu behar ditut. Inork ez dit ezer barkatzen”*

duela gutxira arte 493 jasotzen zituen. Bittoriaren senarraren oinarri arautzailea nahiko altua zen, baina berak 669 euro besterik ez du jasotzen. Rosariok alargun pentsioa eta berak kotizatu zuenari dago-kiona jasotzen ditu, baina biak gehituta senarrak kobratzen zuenaren %75 besterik ez du”.

Ceciliaren kasua bereziki gogorra da, 30 urte baino gehiago baitaramatza pentsio oso baxuarekin. “525 euroekin zerga guztiak ordaindu behar ditut eta inork ez dit ezer barkatzen”. Hori gutxi balitz, Bittori Gartziak ondo dioen moduan, azkenaldian oinarritzko elikagaiak izugarri garestitu dira. “Lehen hilabetea pasatzea lortzen

nuen, baina orain arazo larriak ditut. Benetan gaizki pasatu dut: gas enpresa-koek 150 euro kobratu zidaten, argindarrekoek 50, telefonoa, ura... Bidaia bat egiteko asmoa nuen eta bertan behera uztekotan izan nintzen, baina seme-alabek halakorik ez egiteko esan zidaten eta dirua eman zidaten. Hori lotsa! 60 urterekin etxetik kanpo lanean hasi behar izan naiz!”. Ceciliak ere seme-alabek laguntzen diotela aipatu du. “Euren etxearen hipoteka ordaintzearekin nahikoa ez eta, gainera, niri dirua eman behar! Hori iruditzen zait gogorrena”, dio.

Azkaratek hau guztia argi eta garbi argitaratzea nahi du. “Ez dakit estatu mailako agintariengana helduko garen, baina bertakoek jakin dezatela behintzat. Duela urtebete Aldundiaren aurrean elkarretaratu ginen alargunen bizi-baldintzen hobetzea eskatzeko, ELA eta LAB ere bertan izan ziren, eta gutxieneko pentsioa lanbide arteko gutxieneko soldataren mailara igoko zutela agindu zuten. Dena den, lotsagarria da. Soldata horiekin emakume hauek ez dute ondo bizitzerik eta mirariak egin behar dituzte hilabetea pasatzeko”. Cecilia Perezek 30 urte baino gehiago daramatza hala eta dagoeneko ohituta dagoela dio.

Rosario Suarez duela gutxi gelditu zen alargun eta oraindik ez da egoera berrira egokitu. Bere senarra Azkarateren lankidea izan zen. “Irimon ordainketa-etendurak 1976an hasi ziren eta ordutik hona soldata igoerak hitzarmen kolektiboaren



**Rosario Suarez:**

*“Ez dut gogoratzen noiz erosi nuen azkenekoz zer edo zer niretzat...”*

*Ezin dut!”*

azpikoak izan dira. Ondorioz, oinarri arautzailea ere gutxi igo da eta horrek Rosarioren pentsioan eragina izan du”. Emakume honek hilabete amaierara larri heltzen dela dio. “Semea nirekin bizi da, baina ez diot ezer eskatu nahi. Izan ere, bere soldata ere ez da altua. Etxebizitza erosteko mailegua eskatu du eta, azkenaldian baldintzak gogortu direnez, ez diote eman. 3.000 euro irabazi behar ditu mailegua lortzeko. Hori panorama! Bere arropa erosten du, baina janaria-eta nik ordaintzen ditut. Dirua eman nahi dit, baina ez dut hartuko. Semeak ahalik eta gehien aurreztea nahi dut. Ea egunen batean etxebizitza erosterik duen!”.

Argi dago hiru emakume hauek ez dituztela egungo gizartearen kontsumo-ohiturak. “Sekula ez dugu gastatu egun jendeak egiten duen moduan. Arropa dezente dut, baina ez dakit noiz erosi nuen zer edo

zer niretzat... Ezin dut!”, dio Suarezek. “Lehen egunero joaten nintzen erretiratuen egoitzara kafea hartzera. Orain astean behin. Supermerkatuan, berriz, markarik gabeko produktuak erosten ditut. Askotan apenas afaltzen dut. Ile-apaindegira ilea moztera bakarrik joaten naiz eta lehen baino gutxiagotan. Nik neuk tindatzen dut ilea. Neguan ur hotzarekin garbitu nituen platerak. Beti ondo bizi izan gara eta orain hala egon beharra... Eskerrak lanean hasi naizen... Etxean gelditzen nintzen lur jota eta seme-alabak zer edo zer gertatzen zitzaidala konturatu ziren. Semeak eta suhiak lana eskaini zidaten. Eurekin bazkaltzen dut eta horrek ere mesede egin dit. Nirekin haserretu ziren ez nielako nire arazoan berri eman, baina nahikoa dute beraiek euren kontuekin...”, gehitu du Bittorik.

Dena den, egungo gazteei inbidia diela dio. “Egungo gazteen pentsaera nahiago dut. Guri aurrezten irakatsi ziguten eta zertarako? Zahartzarora heldu gara eta ez dugu ezer! Seme-alabei ahal duten bitartean gozatzeko esaten diet”. Rosario ez da iritzi berekoa. “Ni seme-alabei ahal dudana guztia uztearen aldekoa naiz. Ez naiz aurreztu izanaren damu”.

Azkaratek, berriz, gazteek adinekoek egindako sakrifizioaz jabetzea nahi du. “Gerra ondorengo urteak pairatu genituen eta guk jaso dugu herri hau. Guk utzitakoa hartu dute eta ez digute nahikoa eskertu”. Bittori Gartzia iritzi berekoa da. “Gure adinekook ez dugu seme-alabek guk pasatuko gabeziak jasatea nahi. Hori dela eta, askok denetik eman diete. Ez da hori egin behar. Zer edo zer nahi badute, eurek lortu behar dute”.

Horretan, erreportaje honetako protago-



**Bittori Gartzia:**

*“Etxean gelditzen nintzen lur jota eta seme-alabak zer edo zer gertatzen zitzaidala konturatu ziren”*

nistak eredugarriak dira. Izan ere, euren aldarrikapenen alde gogor borrokatzen ari dira. “Telebistan gasolina-eta Europako gainontzeko herrietan baino merkeagoa dagoela entzuten dudanean, sutan jartzen naiz. Telebistari builaka hasten naiz eta bizilagunek zoratu egin naizela pentsatuko dute... Nola esan dezakete hori telebistan? Normala da gainontzeko tokietan gauzak garestiagoak izatea, soldatak askoz ere altuagoak dituzte eta! Gure pentsioak Europako eskasena dira. Zergak ordaintzeko bakarrik gara europarrak!”, dio Bittori Gartziak.

Azkaratek gai berari eutsi dio. “Alemaniarrak Mallorcara etortzea normala da. Euren pentsioekin bertan primeran bizi daitezke eta gainera ez dute berogailurik ordaindu behar. Gure soldatekin Alemaniara joateko moduan gaude ba!”, esanez amaitu du.

# Itziar Sasieta: Santa Barbarako zaintzailea

*Garai batean herri guztietako eliza eta ermitetan zeuden serorak. Emakume hauek apaizari bere lanean laguntzen zioten eta tenplua zaintzen zuten. Gero eta serora gutxiago gelditzen dira. Horietako bat Urretxuko Mendizabal baserriko Itziar Sasieta da. Santa Barbarako ermita txukun mantentzeaz, behar den bakoitzean irekitzeaz eta bertako kanpaia jotzeaz arduratzen da, besteak beste.*



Mendizabal baserrikoek aspalditik zaintzen dute urretxuarren baseliza kuttuna. Sasietak ez daki zehazki noiztik. "Nire aitona bertako sakristaua izan zen. Ama Beidakar baserrikoa zen eta ezkondu zenean Mendizabalera etorri zen. Orduan bera jarri zen sakristau, bere aitagarrearen ordez. Duela 20 bat urte nik hartu nuen ardura, baina amak etortzen jarraitu zuen. 19 urterekin hasi zen eta 80 urte baino gehiago zituen bertako lanak erabat utzi zituenean. Garbiketa lanetan guk laguntzen genion, baina eliza zabaltzeaz bera arduratzen zen. Bere garaian omenaldia egin zioten", aipatu du Sasietak. Amaren lekukoa hartzea beste aukerarik ez zuen izan. "Amak Don Santiagori Santa Barbarako lana utzi behar zuela esan zion eta apaizak niri pasatzea proposatu zion. Hala hasi nintzen. Gero eta



zailagoa da lan hauek egiteko prest dagoen norbait aurkitzea. Nori utziko diot nik? Bi seme ditut eta ez dut uste nire pausoak jarraituko dituztenik... Laguntza eskatzen badiet etortzen dira, baina normalean bakarrik egiten ditut bertako lanak. Mendizabalekoon sakristau lanak hemen bukatuko dira”.

Parrokiako arduradunek ordezkoren bat aurkitu beharko dute. Sasietak Santa Barbarako basiliza zaintzea ez dela oso gogorra aitortzen du. Izan ere, gutxitan irekitzen ditu ateak eta orduan bakarrik egiten ditu garbiketa lanak. “Ez litzateke gaizki etorriko gehiagotan garbitzea, baina baserrian ere lana dut beti. Baseliza irekitzea eta kanpaia jotzea ere niri tokatzen zait. Kanpaia gaizki dago eta indar asko egin behar da jotzeko. Konpontzeko dago. Elizan matxuraren bat dagoen bakoitzean parrokoari jakinarazten diot”. Egunerako lana ez den arren, borondate hutsez egiten duela kontuan izan behar da. “Ez dut ezer kobratzen. Jendea harritu egiten da lan honen truke dirurik ez dudala jasotzen jakiten duenean. Amaren tokia hartu nuen eta norbaitek egin behar du... Santa Barbarak trumoietatik gordeko nauela erantzuten diet”, dio umorez Itziar Sasietak.

Serorak argi utzi nahi du ez dutela sekula dirurik kobratu, nahiz eta garai batean apaizarentzat beste lan batzuk ere egiten zituzten. “Nire aita nik 12 urte nituenean hil zen. Bera hil aurretik baserri baserri apaizarentzat eskean joaten ginen. Santa Barbara eskea deitzen zitzaion eta lan hori ere Mendizabal baserrikoon ardura zen. Haurrak ginenean, gu geu joaten ginen eta Don Nikolas parrokoaren arre-

**NEURE BURUA NIK NEUK  
GIDATZEKO PREST!**

[WWW.MONDRAGON.EDU/PREST](http://WWW.MONDRAGON.EDU/PREST)

**PREST**


**MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA**

2008  
berrikuntza urtea  
euskadi  
año de la innovación

bak merienda erosteko eskupekoa ematen zigun lana bukatutakoan. Baserrietan berriro ere gure aitak lepo-ondo ederra izango zuela esaten ziguten eta amari lan hori ez genuela egin nahi esan genion. Izan ere, ez geunden halako gauzak entzuteko prest”.

Mendizabal baserrikoek parrokiarentzat egiten duten lanarekin lotutako anekdota gehiago ere badituzte. Euxebi Aiastuik, Itziar Sasietaren amak, susto ederra hartu zuen behin. “San Juan bederatzirrena 6.30ean izaten da, baina ama 6.00etan etortzen zen. Izan ere, kanpaia hiru aldiz jo behar zuen: seietan, laurdenetan eta erditan. Gu artajorran gelditzen ginen eta bera hona ermitara etortzen zen. Laino itxia zegoen egun batean Guardia Zibilarekin topo egin zuen eta sekulako sustoa hartu zuen. Don Santiago meza ematera heldu zenean gertatu zitzaiona kontatu zion eta ez zela gehiago 6.00etan kanpaia jotzera etorriko esan zion. Izan ere, ordu horretan ez zen kristaurik egoten inguru honetan. Ordutik aurrera 6.30ekoa bakarrik jo zuen. Ordurako beti norbait egoten zen basiliza inguruan”.


Ikus daitekeenez, Urretxuko fededunek badute zer eskertu Mendizabal baserrikoiei. Inguruko beste basiliza batzuen zainketaz ere baserritarrak arduratzen dira. “Antiguan Zumarragako Udalak Jesus Perez jarri zuen, baina Agiñagan ere doan lan egiten da. Bertako arduradun nagusia nire ahizpa da, baina garbiketa lanez auzoko baserrietako familia guztiak arduratzen dira txandaka. San Kristobaleko basilizaz, berriz, Oraa Goikoa baserrikoak arduratzen dira”, aipatu du Itziar Sasietak.



## egurra partitzen

Jon Torner  
Jon Ormazabal

## Agur eta ohore



Badoa. Hala diote zurrumurruek. Alderdiak bulztatu omen du horretara, mozio etiko, estetiko edo perifrastikorik gabe gainera. Migel Lopez de Legazpi, Iñaki Urdangarin eta Josu Jon Imazek osatutako tridente magikoari itzala egin dion herritar bakarrak utzi egingo gaitu. ALKATE gabe lagako gaituzte, horrela, maiuskulaz. Zumarraga maite du, Zumarragak maite du. Baina kargutik kenduko dute, eta Urola Garaiko Denis Itxasok beteko du bere hutsunea. Planta hobea dauka, modernoagoa, serio eta jatorragoa. Hizlari abila da, eta badaki politika egiten. Horren beldur gara gu, ez ote datorren politika egitera. Eta guk herria egingo duen norbait nahi dugu, pertsona karismatikoagoa... eta graziosoagoa, zergatik ez. Gainera, gure alkate berria, tuntuntuntuun... Villarreako izango da! Ahhhhh!!!!

Ez, ez, hangoa izateak ez dauka zerikusirik gure aurreiritziekin. Gauzak fundamentuz egin ditza-

keten villarrealdar asko daude (beti defenditu dugu hori), baina Zumarragako alkatea izateko ez da nahikoa gauzak fundamentuz egitea. Oso pertsona gutxi daukaten zerbait eduki behar da. Berezi bilakatzen zaituen izartxo bat. Zaila da bi hitzetan laburtzea, baina gure alkateak badauka hori, dudarik gabe. Karisma dei diezaiokegu, baina askoz ere gehiago da... Uztailaren 2an, jaitsiera baino lehen herriko agintariek Antioeren inguruan ematen duten itzulia da horren lekuko. Alkatea kolore guztietako herritarrak agurtzen, bere keinu borbonikoarekin, eta publikoa alkatea goratzen (bakoitza bere modura, hori bai). Zein herritan gertatzen da halakorik? Ez dakigu aurtengo Santa Isabel egunerako erreleboa emango den ala ez. Ez dugu uste, eta ez dugu nahi, alkatea merezi bezala agurtu nahi dugulako, txalo eta irribarre artean... Zure falta sumatuko dugu. Agur eta ohore Antton.

## Zer iritzi duzu alargunen pentsioen auziaz?

### Etorkizunean izango duzun pentsioak kezkatzen al zaitu?



Emilio Palmero



Pensionista naiz eta badakit alargunei ordaintzen dieten diru kopurua eskasa dela. Garai batean %48 eta orain pixka bat gehiago: %52. Hil arteko soldata eduki beharko luketela uste dut. Gazteei dagokienez, etorkizunean gerta daitekeena aurreikustea komeni zaiela uste dut. Gainera, geroz eta pensionista gehiago izango dira.

Eva eta Marisa Cid



Ez da bidezkoa alargunei soldata erdira jaitea, emakumeek bizitza osoan zehar familia aurrera ateratzeko lan egin dutenean. Kasu bakoitza begiratu beharko litzateke. Batzuen kasuan ez da ezer gertatzen pentsioa erdira jaisteagatik, baina beste batzuentzat tragedia da. Ongizate zerbitzuek alargunei lan egiteko adinean daudenei baino lehen lagundu behar diete.

Aintzane Sanz



Pentsioak oso eskasak direla uste dut. Emakume batzuk, osasunez ondo badaude, lanean hasten dira. Horrek zer edo zer esan nahi du. Politikariek gauza asko agintzen dituzte, baina gutxi bete. Pentsioen igoerak oso txikiak izaten dira.

Estibaliz Garcia de Albeniz



Egoera honetan dauden alargunei bi gauza gertatzen zaizkie: batetik gehienek urte asko dituztela eta bestetik soldata murrizten dietela. Adin horrekin zaila da lana aurkitzea edo lana egiteko indarra izatea. Senitartekoez laguntzen ez badute, euren egoera oso larria da. Pentsioak igotzea espero dut.

## Gaia: Denbora

### Doinua: Goizian goizik jeiki ninduzun

Ainhoa Urretabizkaia



Egutegira begira jarriz  
hile berri bat aurkitu,  
konturatzeko nire denbora  
ez al dit inork bahitu?  
Aberats eta pobreenak ere  
denak eramaten ditu,  
inork ezin du bere gain hartu  
ta berak gainditzen gaitu.

Orratz batzuen abiadurak  
markatzen digu bizitza,  
oraindik inork ez du aurkitu  
hori gainditzeko giltza.  
Erlojuaren barruan gaude  
hauxe da gure baldintza,  
hasera berak ematen digu  
ta berak du azken hitza.

Tik-tak batetik bestera joanez  
inoiz ez dauka etena,  
aldiz tartean dagoen hori  
agian da ederrena.  
Txiki ta eskas, laburra baina  
zeurea bakarrik dena,  
hartu ta egin motz horretatik  
ahalik eta luzeena.

## iritziz iritzi

Aintzane Arizmendiarieta



### Jaunartzea

Aurki jaunartzeak izango ditugu gure parrobian. Egun hauetan azkeneko ukituekin gabiltza: entseguak, bilerak... Horrek guztiak nire lehenengo jaunartzea gogorazten dit. Giro oso desberdina genuen. Lehen erlijio giroa zegoen edonon: etxean, kalean... Gaizki portatzen baginen, Jainkoak zigortuko gintuela edo infernura joango ginela irakasten ziguten. Gaur, berriz, Jainkoa maitagarria dela irakasten diegu umeei. Gurasoek katekesian ikasitakoak ondo barneratzen laguntzen ziguten eta horri esker oraindik ondo dakizkigu ikasitakoak. Egun ez da hori gertatzen. Bestalde, jaunartze eguna etxean ospatzen genuen: ama bizpahiru egun lehenago hasten zen sukaldean lanean eta aitona-amonak, izeba-osabak eta lehengusuak

etortzen ziren. Arropari dagokionez, orduan ere abitua janzten genuen. Opariak, ordea, oso desberdinak ziren: belarritakoak, ordularia, urrezko katea, jantziak edo beharrezko gauzak izaten ziren. Nire lehenengo jaunartzeko oroitzapenak oso politak dira, egun berezia izan baitzen. Nire lagunekin egin nuen jaunartzea, oso urduri geunden eta pozez gainezka, egun horretatik aurrera Jauna hartu genezakeelako helduekin batera. Eliza kanpoaldean familia guztia zegoen nire zain. Zein pozik jarri nintzen ikusi nituenean! Niretzat garrantzitsuena jaunartzea bera eta herritik kanpo dudana familia ikustea izan ziren. Oraingoek opariak gustura hartuko dituzte, baina familiarekin elkartu izana bereziki oroituko dutelakoan nago.

## 1989

### *La Salle ikastetxearen 75. urteurrena*

Apirileko azkeneko igandean La Salle-Legazpi ikastetxeko ikasle ohi talde batek San Asension bizi den Hipolito fraidea bisitatu zuen, 100 urte bete dituela eta. Hipolito Zumarragako eskolako zuzendaria izan zen 1948tik 1954ra eta arrastoa utzi zuen. Argazkian fraideen ailegaeraren 75. urteurrenean ageri da. Ezkerretik eskuinera: Jose Luis Ruiz, Antonio Urdangarin, Juanxo Bert, Hipolito, Carlos Igartua, ..., Francisco Javier Kortabarria eta Vicente Quevedo.



# Otamotz.com atari digitaleko edukirik klikatuenak



## ALBISTEAK

1. Amaia Iturriotz Urruzuno lehiaketako poesia sailean garaile. (Zumarraga-Urretxuko Bertso Eskola/Kultura/04-24)
2. Ainhoa Urretabizkaia urretxuar gazteari elkarrizketa *Matrakan*. (Edotarikoak/05-01)
3. KK in'zona eguna izango da larunbatean. (KK in'zona/Gizartea/05-7)
4. Irakasle plaza betetzeko onartuen eta baztertuen zerrenda. (UZUE/Gizartea/05-06)
5. 1.086 lagun dagoeneko martxan. (Beitia martxako antolatzaileak/Kirola/05-11)
6. Bihar Gorka Azkarate Deban kantari. (Uxue Fernandez Lasa/Kultura/05-15)
7. Urretxuko EA "zur eta lur" geratu da PSE-EEK egin dion eskaeraren aurrean. (Politika/04-28)
8. Urretxuko Arau Ordezkatzaile berriak "aurki" aurkeztuko dituztela esan du alkateak. (Politika/05-10)
9. Eitzako mus txapelketan Manu Garcia eta Aitor Fernandez Telleria txapeldun. (Festak/ 05-11)
10. Mendi lasterketa taldea osatu nahian. (Mendi lasterketa taldea/Kirola/05-05)

## AZKEN ARGAZKI-BILDUMAK

1. Eitzako jaiak 2008.
2. Iñaki Beitia mendi martxa 2008.
3. Zintzo Mintzoren bilduma (1994-2005).

## AZKEN BIDEOAK

1. Iñaki Beitia mendi martxa 2008.
2. Zumarraga-Urretxuko Bertso Eskolako kideak Elgoibarren.
3. Topaguneak 10 urte bete ditu.
4. Zelai Arizti parkearen inaugurazioa.
5. Tirri Tarra eta Goiargi abesbatza.
6. Iñaki Zabalari elkarrizketa Argian.
7. Patxi Iraeta Sautrela saioan.
8. GBBk 100 urte bete ditu Zumarragan.
9. Koadrilen arteko herri kirolak.

## AZKEN AUDIOAK

1. Iñaki Beitiaren omenezko mendi martxa Euskadi Irratian.

## ALDIZKARIA

1. Ino Ugarteburu. (Boteprontoan/136. alea)
2. 1965: pelota txapelketa. (Argazki zaharra/136. alea)
3. Gimnasia erritmiko eskolako beteranoak. (Izerdi patsetan/136. alea)

## INKESTAK

### Zer iruditu zaizu *Hordago txikira* ekimena?

- Oso ona: %56
- Ona: %25
- Ez dakit zer den: %17
- Txarra: %2

### Zelai Arizti parkea nola geratu den gustatu al zaizu?

- Bai, onerako izan da: %54
- Ez, nahiago dut lehen zegoen bezala: %46

### ANVk alkatetza duen herrietan zentzura-mozioak aurkezteari nola irizten diozu?

- Ez dut ongi ikusten: %75
- Beharrezko neurria da: %17
- Zenbait kasutan bakarrik: %8

## CERCANÍAS



Josi Labajos

Josi Labajos

### Cercanías

Egia esan, gero eta beharrezkoagoa egiten zait pairatu behar ditugun diskurtso zahar eta zakarretatik ihes egin eta poema baten biluztasunean murgiltzea; egunero darabilzagun azaleko esaldi eta hitz prefabrikatuak eta zimelduak utzi eta poesiaren freskotasan berritzailean babestea. *Por tierra de nadie* (2004) liburuaren ostean, hona hemen *Cercanías*, Josi Labajos musikari eta idazle zumarragarrenen bigarren

poema-liburua. Kanpoko paisaiak eta barruko bizipenak uztartzen dira oraingoan, modu zintzo eta helduan. Baina hirien artean milaka kilometro egon arren, sentimenduetan distantzia guztiak motzak dira beti. Horregatik, urrutiko lekuetan idatzitako poemetan hurbileko korapiloak askatzen ditu poetak: bakardadea, maitasuna, jakin-mina, musuak... eta itxaropena.

Pello Biain

### Borrokan

Hitzez ulertu ezin dena omendu nahi nuke

Nerabezaroan hasi ziren kontzertuak ematen. "Gurasoek eramaten gintuzten!" esan izan du Borrokan taldeko kideetako batek, garai horiek gogoratzerakoan. Eta euren lehen lana (*Borrokan*, Autoekoizpena, 2002) ere oraindik ume moko batzuk zirenean kaleratu zuten. Baina adinez ume moko samarrak izan arren Berako (Nafarroa) boskotearen lan hark sekulako heldutasuna zuen. Rock-a muturrera eramanda, tentsio

une zoragarriak, Joseba Lertxundiren ahots ezin bereziagoa, erritmoarekin eta kitarrekin egindako jolasak... *Post* etiketa jartzea litzateke errazena, baina libreak dira. Iazko irailan atera zuten bigarrena, eta aurrekoak baino ñabadura gehiago baditu ere, Borrokan soinuari, nortasun berezi, indartsu eta aske horri eusten dio oraingoak ere. Harribitxia da Borrokan.

Igor Susaeta



Jia Zhang-ke

### Naturaleza muerta

Urtegi bat egin behar dute eta urpean geratuko den herri bateko zenbait herritarren sentimenduak kontatzen ditu filmak. Herri berri batera daramatzate, baina leku berrian pertsonaiek ez dute jakingo euren burua kokatzen. Dokumental teknikekin ondutako filma da *Naturaleza Muerta*, herritarren istorio txikiak, familia arteko harremanak zein maitasunezkoak jasotzen dituena. Jia Zhang Ke zuzendaria Shanxi (Txina) pro-

bintziara joan zen Liu Xiadong artistaren gaineko dokumentala egitera. Yangtse ibaiaren ibilbidean egin behar zuten urtegi urperatuta geldituko zen herrian bizi zen artista. Txinaren modernizazioaren dinamikari kritika egiten dio Jia Zhang Kek. Veneziako Urrezko Lehoiaren azken irabazlea da *Naturaleza Muerta*. Film hau hilaren 30ean eskainiko da Zelai Arizti aretoan.

ButaK 21 zineklub taldea








# Valentin Berriotxoa: Saskiratze guztien lekuko

*Valentin Berriotxoa urretxuarrak ez du aurkezpen handirik behar. Saskibaloiak herrian eman zituen lehen pausoen lekuko izan zen eta kirol honen alde gogor lan egin du. Makina bat urte daramatza Goierri taldean. Bere garaian zer edo zer jokatu zuen, baina benetan atsegin duena entrenatzea da.*



## **Urretxun jaiotakoa izango zara...**

Hala da eta horretaz harro naiz gainera. Oñatiko lankideek Legazpikoa naizen galdetzen didate oraindik eta nik urretxuarra naizela erantzuten diet, ea ez al den nabaritzen. Batzuetan Urretxukoa naizela argi uzten saiatzen naizelako adarra jutzen didate, baina hala egiten ez badugu aurki mapan agertzeari ere utziko diogu...

## **Zer diozu zure familiaz?**

Aitak bulego batean lan egiten zuen eta ama etxeakoandrea zen. Ama Auritzekoa zen, nafarra, eta aita Urretxukoa. Iruñean ezagutu zuten elkar. Aita futbolaria izan zen eta Osasuna taldean jokatu zuen. Garai hartan elkar ezagutu zutela uste dut. Gero Real Madrilen bigarren taldean jokatu zuen. Gerra heldu zen eta tirorik jo gabe kartzelan sartu zuten eta heriotzazigorra ezarri zioten ofiziala zelako. Injinerutza ikasten ari zelako izendatu zuten ofizial. Kartzelatik ateratzen zuten Jerez Industrial taldearekin jokatzeko.

**Nola ihes egin zion heriotza-zigorrari?**

Asko saiatu ondoren, heriotza-zigorra kendu, 30 urtekoa jarri eta Mirandara ekarri zuten. Diru asko ordaindu ondoren, askatu egin zuten. Herrira itzuli zen, baina egunean bitan Guardia Zibilaren koartelera joan behar zen. Ez zitzaion kontu horiei guztiei buruz hitz egitea gustatzen. Real Madril taldea Atotxara etortzen zenean, jokalaria ohiei partidarako sarrerak bidaltzen zizkien... baina aitari ez. Zerrendetatik ezabatu zuten, baina entrenamenduetan Zamora atezain mitikoari penaltiak botatzen zizkiola kontatzen zuen. Izan ere, oso jaurtiketa ona omen zuen. Gerrarekin bukatu zen futbol kontua berarentzat.

**Dena den, Berriotxoatarrak futbolagatik baino beste kontu batzuegatik zarete ezagunak... Urrerxuar peto-petoa zarela diozu, baina zuen arbasorik ezagunena, Bizkaiko patroia, Elorriokoa zen.**

Nire birraitona Elorriokoa zen, baina hona etorri zen lan kontuegatik. Osaba eta iloba etorri ziren eta hemengo bi ahizpekin ezkondu ziren. Elorrion familia dugu oraindik eta santuaren egunean, uztailearen 4an, bazkaria egiten da. Ni ez naiz sekula joan, Zumarragako jaietan izaten baita.

**Familian santu bat izatea presio handia al da?**

Lasai bizi naiz, zerua ziurtatua baitaukat! Bekaturen bat egin beharko dudala esaten dut, bestela zerutik harago joango bainaiz... Bizkaiara joaten naizenean eta nire izena Valentin Berriotxo delako esaten diedanean, adarra jotzen ari naizela uste dute. Santuarena ezezagunekin hitz egiteko gai aproposa da.

Eguraldiaz gain, honetaz ere aritzeko aukera dut.

**Gaia aldatuz, non egin zenituen ikasketak?**

La Sallen eta Medrano ahizpen eskolan. Handik Donostiara joan nintzen. ESTEn enpresa teknikari ikasten hasi nintzen, baina lehen ikasturtea osatzeko bi ikasgai falta zitzaizkidanean soldadutzara joan nintzen. Itzuleran ikasketekin jarraitzeko

*“Bizkaitarrei nire izena*

*Valentin Berriotxo delako*

*esaten diedanean*

*adarra jotzen ari naizela*

*uste dute”*

asmoa nuen, baina denbora asko galdu nuen eta ez nintzen eskolara itzuli.

**Nola oroitzen duzu zure haurtzarora?**

Zuhaizti taberna dagoen etxean bizi ginen. Anton Rodriguez gure gainean bizi zenez, umetatik elkar ezagutzen dugu. Haurtzarora, egungo umeek ez bezala, kalean eman genuela oroitzen dut. Futbola besterik ez zegoen. Lizeoa dagoen tokian Badiolatarren patata-saila zegoen. Hala deitzen genion, baina artoa, zumea eta bestelakoak ere izaten ziren. Udan futbolerako erabiltzen zen. Auzo batzuek besteen aurka jokatzeko zuten. Futbola beti izan dut gustuko. Lau bat lagun Beasainera joan ginen bizikletan hango taldearekin entrenatzera. Itzultzeko esan zidaten, baina ez nuen bakarrik joan nahi. Lau bat saiotan sei bat gol sartu

nituela oroitzen dut. Aldridgen modukoa nintzen: beti toki aproposan nengoen. Bestelakoan, txarra nintzen.

**Nolatan hasi zinen saskibaloian?**

Urretxun lehen partida 1963ko uztailearen 18an jokatu zen, Ederrena pilotaleku zaharrean. Egun batzuk lehenago, Zumarragako jaietan, Antzuolako taldearen aurka jokatu genuen. Herrian ez zegoen saskirik eta Enrique Orbegozok egin zituen fabrika. Urretxukoa errebantxa izan zen. Antzuolakoek lehen taldea ekarri zuten eta irabazi egin ziguten.

**Zeintzuk izan ziren hurrengo pausoak?**

Epifanio fraideak La Sallen taldea sortu zuen. Bertan Epeldek, De Miguelek, Rodriguezek, Ormazabalek, Francisco Alberdik... jokatzeko zuten. Antonen laguna nintzenez, delegatu lanak egin nituen sarritan. Orduetik ez dut saskibaloia utzi.

**Zerk erakarri zintuen horrenbeste?**

Saskibaloia gustukoa nuen eta Epifaniok jendea ilusionatzeko ahalmena zuen. Epaileen elkargoan mahaiko lana egingo zuen jendea behar zuten eta horretan ere aritu nintzen. Goierri sortu zenean, bertan hasi nintzen. Entrenatzailea Esnal zen. Antzuolatik etorri zen. Partidak Urretxuko plazan izaten ziren eta mailaz igotzen hasi ginenean pilotalekura pasatu ginen. Neurriak ez ziren legezkoak, baina tira...

**Ez al zenuen Goierriarekin jokatu?**

Koadrilako taldearekin bai, baina Goierriarekin ez. Txapelketa batean Segundo Azpiazu, Santi Zabaleta eta hauen aurka jokatu genuen eta sekulako jipoia eman ziguten, baina ez ziren 100 puntura heldu. Hortik aurrera entrenatzaile lanetan hasi nintzen. Jubenil taldeak ez zuten entrenatzailekerik eta Retegi iturginak lan horretan hastea proposatu zidan.



Valentin Berriotxoa, makurtuta ezkerretik bigarrena, Urmeak taldeko jokalariekin. Erdialdean eserita dagoen haurra Andoni bere semea da.

### **Gustuko lana duzu.**

Hori da gehien atsegin dudana. Partida asko ikusi ditut eta ikastaro pare batean ere parte hartu dut.

### **Makina bat pasadizo izango dituzu.**

16 bat urte nituenean Burgosera joan ginen. Ordu erdi berandu heldu ginen eta kiroldegia alde batetik bestera zeharkatu behar izan nuen. Sekulako txistu hotsa entzun behar izan nuen. Aurkako taldean Kote Olaizola zegoen, egun Aldundian lan egiten du, eta lagundu egin zidan. Eskerrak partida galdu genuen, bestela ez ginen handik bizirik aterako! Bestalde, kanpoko partidetara bi autobusetan joaten ginen: batean jokalaria eta bestean zaletuak. Beste garai batzuk ziren... Tuteran saski bat okertuta zegoen eta lehen zatian bertan sartzea tokatu zitzaigun. Bigarrenerako mugitu egin zuten eta berriro guri jarri ziguten! Guk ere antzerakoak egiten genituen, e! Beste taldeetakoek Ederrena pilotalekuan mutikoek pipa azalak botatzen zizkietela gogorazten didate oraindik.

### **Non aritu zara lanean?**

Banku bulegoetan. Banco Herreron hasi nintzen eta haiekin Santanderren bost hilabete, Benaventen bederatzita eta

*“Clemente deitzen didate,  
defentsari garrantzia  
handia ematen baitiot eta  
jokalariek horretaz  
jabetzea nahi baitut”*

Oviedon bat eman nituen. Gero Donostiara etorri nintzen eta handik Zumarragako Banco de Bilbao bulegora. Zertarako gezurretan aritu... niri saskibaloia gustatzen zait eta talde profesional bat entrenatzen gusturago izango nintzateke. Dena den, kirolariek dioten moduan, aldamia okerragoa da.

### **Gaur egun saskibaloia entrenatzaile**

### **profesionala izatea errazagoa dela uste al duzu?**

Beharbada bai, baina herrietan halako gauzak zailagoak direla iruditzen zait. Hiriburuetan errazagoa da. Donostiakoek aukera gehiago dituzte. Herrietako jokalaria oso onak izan behar dira ikuskatzaileen arreta lortzeko. Askotan guk deitu behar izaten ditugu!

### **Zer nolako entrenatzailea zaa?**

Talde batek sheriff baten figura oparitu zidan, nahiko gogorra bainaiz. Saskibaloiko Clemente ere deitzen didate. Izan ere, defentsari garrantzia handia ematen diot eta jokalariek horretaz jabetzea nahi dut. Asko kostatzen zait, erasotzea atsegin baitute. Erasoa defentsan hasten da: ondo defenditu behar da eroso eraso egin ahal izateko. Dena den, dezentte bigundu naiz. Lehen zorrotzagoa nintzen. Bi urte Legazpin eman nituen, Andraitz taldean, oso ondo hartu nindute la esan behar da, eta itzuli nintzenean jokalarien jarrera asko aldatu zela iruditu zitzaidan. Egun Gobernu Kanpoko

Erakunde garaia dirudi. Guztiek jokatu behar dute. Lehen 12 ginen, partidetan zazpi jokatzeko zuten eta gainontzeko gogor entrenatzen zuten asteburuko partidetan minutu batzuk izateko. Egun entrenamenduetara joaten ez dena ere kexu ageri da jokatzeko ez duelako...

**Jokalariak asko aldatu dira, beraz.**

Hala da. Egun ez dute entrenamendu guztietara etortzerik, eskolatik kanpoko ekimen askotan parte hartzen baitute. Jokatzeko atsegin dute, baina horretarako entrenatu beharra dago.

**Familian saskibaloia zaletasun handia duzue. Jonpol iloba Goierriren saskibaloia saileko delegatua da.**

Bai. Bestalde, Madrilgo iloba bat ere entrenatzailea da eta Real Madrilen sartuta dago. Semeek ere zaletasuna dute. Asteburu batean kategoria guztietako zazpi partida ikusteko gai naiz. Oraindik ez naiz saskibaloiaz nekatu. Gaztetxoekin partidekin gozatu egiten dut eta horrek benetako zaletua naizela erakusten du.

**Profesionalen artekoak are eta gusturago ikusiko dituzu...**

NBA ez dut atsegin eta ez dut partidarik ikusten. Individualistak dira eta nik taldean jokatzeko atsegin dut. Europako eta Estatu Batuetako unibertsitateetako partidak askoz ere gehiago gustatzen zaizkit. Dena den NBAkoek gogor entrenatuko dute Pekingo Olinpiar Jokoetarako, berriro galtzea oso gogorra bailitzateke beraietzat.

**Zein jokalaria mota atsegin duzu?**

Priggioni gustatzen zait, oso azkarra dela iruditzen baitzait. Partida dominatzen du eta badaki azken minutuetan zer egin behar den. Bestalde, gainontzeko jokalariek jokarazten ditu. Beste base batzuek



Valentin Berriotxoa, Jonpol ilobarekin.

*“Gaztetxoekin partidak ikusten gozatu egiten dut eta horrek benetako zaletua naizela erakusten du”*

20 puntu sartzen dituzte, baina taldeak galdu egiten du. Honek ez du punturik sartzen, baina taldeak irabazi egiten du. Taldearen alde hori egiteko gai diren jokalariek atsegin ditut. Garrantzitsuena taldeak partida irabaztea da eta horretarako defentsan lan egin behar da eta bakoitzak bere aukerak lortu eta baliatu behar ditu. Scola ere oso gustukoa nuen. Goierrikoen artean Jon Lekuona eta Aitor de Miguel asko gustatzen zaizkit. Badakite zein den euren rola.

**Luzaroan jarraitzeko asmoa al duzu?**

Entrenatzaile soil bezala jarraitu nahi dut. Azken urteetan taldearen inguruko lanek

ordu asko kendu dizkidate. Aurten astelehen, astearte, ostegun eta ostiraletan entrenamendu saioak ditut, larunbatetan partidak eta igandetan saskibaloia eskola. Horretaz gain, bilerak izaten ditugu. Entrenamenduak ondo prestatzeko astirik ere ez dut. Talde bakarra entrenatzea gustatuko litzaidake. Duela lau urte lau talde bakarrik genituen eta gimnasia eta euskaltegia joateko astia nuen. Egun ez dut horretarako astirik.

**Bankuentzako lan egiten duten asko gazte erretiratzeko ari dira. Beharbada zuk ere zortea izango duzu.**

Nire lankide guztiak 55 urte baino gutxiagorekin erretiratu dira. Nik 55 baino gehiago ditut eta aurki tokatzea espero dut.

**Zer egingo duzu orduan?**

Talde bakarra entrenatuko dut eta egun batzuetan jai hartuko dut. Ez dut garai bateko energia!

**Jonpol ilobak lagunduko dizu.**

Barre egiten du eta gero nahi duena egiten du... Behin eta berriro esan nion saskibaloia eskolara ez nintzela joango Beitia Martxa prestatu behar nuelako eta ezentzunarena egiten zuen.

**Dena den, ilobarekin harreman ona duzu. Izan ere, zaletasun berberak dituzue: saskibaloia eta garagardoa.**

Saskibaloia eta garagardoa osagarriak dira gainera: Batzuetan Huts tabernara joaten naiz saskibaloia partidak ikustera eta garagardo pare bat hartzen dut.

**Noiz joan behar duzu Municheko garagardo azokara?**

Ez dakit noiz, baina ziur joango naizela. Duela urte batzuk Goierri Alemaniara joan zen partida bat jokatzera eta berriro joateko asmoa dutela uste dut. Ahal badut, ni ere joango naiz.

**UROLA**

**ELEKTRATRESNAK**

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91  
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

**ATA**

HARATEGIA URDAITEGIA

☎ 943 72 00 61  
Leturiatarren enparantza, 2  
ZUMARRAGA

**MURUA**

Oinetako konponketa

Laruzko erropen konponketa.  
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU  
Golden plazoletan

centro óptico  
**Javier Arratibel**  
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako  
tentsioaren neurketa - Graduatutako  
eta eguzkitarako betaurrekoak -  
Lentilak - Termometroak eta  
barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA  
☎ 943 72 54 84

**Egumendi, S. L.**

Manganeso altzairuaren  
aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48  
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41  
Urretxu-Zumarraga  
www.egumendi.com  
egumendi@egumendi.com

**Keros** Enmarkatzeak  
Arte ederrak  
Dekorazioa  
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 943 72 41 60

Secundino Esnaola, 16 B  
Tel: 943 72 16 63  
ZUMARRAGA

**SUTAN**

Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak  
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38  
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bajua - URRETXU  
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz

**Lorea**

Pinturak - Etxeko apainketak  
Lurrindenda - Jostailuak

☎ 943 72 41 90  
☎ 615 75 33 28  
Fax: 943 03 79 88

Legazpi, 5 - Zumarraga

**PLAZAOLA**

**ITURGINTZA**

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA  
943 72 13 70

**Lanbiza**

- Dietetika  
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 943 72 36 52

**HERCE**  
Electricistas M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak  
Enpresa mantenua  
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50  
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66  
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU

**natural optics**

**URRETXU**

Lurdes Rodriguez Iparragirre, 1-Urretxu  
Optiko-optometrista ☎ 943 72 59 68  
urretxu@naturaloptics.com  
www.naturaloptics.com

**asirauto**

BIGARREN ESKUKO AUTOEN  
ESKAINNTZA ZABALA

Mugitegi industrialdea, Urretxu  
943 72 59 22  
659 67 89 79

**ALTZARIAK**

**MERKA-UROLA**

Mugitegi, 17 Tel. eta faxe 943 72 58 28  
URRETXU

**TABERNA**

**Jaurretu**

**JATETXEA**

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19  
ZUMARRAGA

**PREMANK**

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO  
PREBENTZIO ZERBITZUA

KALITATEZKO ZERBITZU  
ERAGINKORRA  
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA  
ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia  
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)  
943 72 41 00  
administracion1@premank.com

Construcciones  
**MENDIOLA**

Labeaga, 9. Tf. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10  
20700 URRETXU (Gipuzkoa)  
Email: mendiola@cmendiola.com  
www.cmendiola.com

**Darmanki**

Edergintza

Edergintza tratamenduak  
Depilazioak  
Solarium

Labeaga, 2 - URRETXU  
☎ 943 72 25 13

**belar-zain**

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura  
Mediku-homeopata kontsulta  
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

**BIONA**

**ARozTEGIA**

Altzariak neurrira

☎ 943 72 02 55  
Erratzu, z/g URRETXU

**ALEX-IBOLAK**

alejandra albisua

☎ 943 72 52 22  
Soraluze, 6 - Zumarraga

Herri Aldizkaria

**Otamotz**

TOKI APROPOSA DUZU HAUXE  
ZURE IRAGARKIA JARTZEKO

Iker Telletxea - 647 319 757 - beasain@iragarri.net

Elkarrizketa hau urtarrileko alean hasitako Urola Garaiari buruzko erreportajearen jarraipena da.

# Xabier Arratibel: “Ezin diogu erantzun dagoen lan eskariari”

*Guztiek begi onez ikusten duten mankomunitate mailako erakunderik bada, hori UGLE lanbide eskola da. 1997an jarri zen abian eta ordutik makina bat gazte prestatu ditu inguruko enpresetan lan egiteko. Xabier Arratibel Fundazioko zuzendariarekin hitz egin dugu Urola Garaiaren etorkizunari buruz.*



Xabier Arratibel, lanbide eskolako sarreran.

## Nolatan sortu zen UGLE?

Oraingoa 11. ikasturtea dugu. Politikoek eta enpresek azken hauen beharrei aurre egiteko eskualde mailako ikastetxea sortzea pentsatu zuten. Batis Maizek hartu zuen egitasmo horren ardura. La Sallek Lanbide Heziketa alorrean esperientzia zuen, baina jaiotzasak behera egin zuen, ikastetxeen arteko berrantolaketa egin zen eta horren ondorioz ikastetxe erlijiosoak batu egin ziren. La Sallek 0-18 urte bitarteko ikasleak zituen eta hori ikastetxe batentzat asko da. Oso zaila da baldintza horietan punta-puntan mantentzea. Garai hartako baliabideek berrikuntza behar zuten eta instituzioen laguntza ezberdinak (Mankomunitatea, Hezkuntza saila, Justizia eta Lan saila, Fondo Social Europeo delakoa, enpresak...) ondo etorri ziren helburuak lortzeko. Hori guztia Batissek gidatu zuen eta ordutik hemen gaude.

### **Zer ibilbide osatu duzue urte hauetan guztietan?**

Egoera erabat aldatu da. Ikastetxea oso ondo ikusita dago Hezkuntza sailan eta hori oso garrantzitsua da. Pauso handiak eman dira. Hezkuntza arautuan espero genituen unitateak (15) mantentzen ditugu eta horretarako lan handia egin behar izan da. Batxilergoko bost unitate ditugu eta baita bost heziketa ziklo ere: bi erdi mailakoak eta hiru goi mailakoak. Guztira 215 ikasle inguru ditugu. Jarduera ez arautua ere badugu: etengabeko formazioa (langileei zuzendua) eta langabetuei eskaintzen dieguna. Esan behar da orain dela urte batzuk enpresentzako formazioan beherakada eman zela, erre egin zirela hainbeste eskaintzarekin. Oraingo eskaintza zehatzagoa da, formazioa *a la carta* esaten den bezala eta gainera enpresan bertan ere egiten da. Langabetuentzako ikastaroei dagokienez, egun langabezi tasa baxua da eta ikastaroak aurrera ateratzeko arazoak ditugu. Seinale ona da. Aipatutako honetatuz guztiaz gain, enpresentzako zerbitzuen atala ere badugu. Atal edo alor honetan proiektuak lantzen dira. Egun, Arcelorrekin eta Legazpiko eta Azkoitiko Sidenorrekin lanean ari gara, Legazpiko eta Zumarragako udalentzat proiektuak egin dira eta une honetan enpresa txiki batzuekin ere bai. Ugasarekin batera sustatzaileei laguntzen diegu enpresak martxan jartzen eta behar duten aholkularitza ematen.

### **Egun elkarlanean ari zarete, baina zergatik erabaki zen bere garaian Goierriki eta Urola Garaiak eskola bana izatea? Zergatik ez ziren bateratu?**

Nik Goierri Goikoa esaten dut beti, ez zait

Urola gustatzen, baina tira... Urola Garaian La Sallek lanbide heziketa alorrean urte askotan egindako lana ez dugu ahaztu behar. Bertatik profesional asko atera ziren, jakinduria handikoak, egun hemengo enpresetan postu garrantzitsuak dituztenak eta enpresak sortu dituztenak. Beraz, begira zer nolako lana egin zen... Nola botako halako esperientzia pikutara egun batetik bestera? Are gehiago merkatua dagoela ikusiz... Gainera, beti egon izan dira bi ikastetxe hauek eta ez dezagun ahaztu Goierriko jende asko La Sallen ikasitakoa dela. Hala ere, Goierriko eskolaren eta gurearen artean harremanak onak dira eta elkarrekin zerbait proiektu egin ditugu eta egiten ari gara. Beraz, lehia sanao dugu. Biontzako tokia dago. Kontua da, gu duela 11 urte egituratu ginela fundazio bezala enpresarietara eta politikarietara eskualde mailan Lanbide Heziketako ikastetxea nahi zutelako eta Goierriko duela 20 urte baino gehiago eman zuela urrats hori.

### **Zuen eskaintza enpresetara bideratuta dago. Hemengo enpresak bakarrik hartzen al dituzue aintzat?**

Gure helburu nagusia eskualdeko beharrei erantzutea da, baina ikastetxera kanpoko ikasleak ere etortzen dira. Hemendik Goierriara ere joaten dira. Beraz, joan-etorria dago. Hemengo ikasleak Irizarrera, Orklira, Ulmara... ere joaten dira. Hemengo enpresekin eta kanpokoekin oso hartu-eman ona dugu. Beraien beharrei erantzuten saiatzen gara.

### **Zein da zuen ekarpena?**

2005-2006 ikasturtean plan estrategikoa egin genuen eta, besteak beste, gure xedea, ikuspegia eta baloreak definitu genituen. Oraingo plan estrategikoaren

(2005-2010) helburuetako bat lan eremua EAEra zabaltzea da, Urola Garaia eskualdea kontuan izanik noski. Gainera, Zientzia eta Teknologia Sareko partaideak izateko lan egingo dugu. Helburua, elkarre autonomoan agente garrantzitsua izatea da: bai formazio arautuaren eta ez arautuaren alorrean eta baita enpresa esparruan ere.

### **Nola ikusten duzu zuen etorkizuna?**

Itxaropentsu eta ilusioz beterik. Lehen aipatutako esparru guztietan aukerak daudelako eta aurrera egiteko indarrekin sentitzen garelako. Aukera asko ditugu: formazio arautuan, Lanbide Hastapena (CIP) fundazioaren egituraren txertatzeko beta, formazio ez arautuan, formazioa neurritan eskaini, ikastetxetik pasatu diren ikasleei ikastaro berriak eskaini, sustatzaileen alorrean enpresa berriak sortzen lagundu, enpresetako proiektuekin jarraitu...

### **Nola ikusten duzu Urola Garaia beste eskualde batzuekin alderatuz?**

Ez naiz konparaketa asko egitearen aldekoa. Izan ere, askotan besteek ondo egiten duena bakarrik ikusten dugu eta ez gaizki egiten dutena. Besteek ongi egiten dutena geurean txertatzen ikasi behar dugu, aliantza edo elkarlanaren bitartez. Bestalde, guk ondo egiten duguna besteiei irakatsi behar diegu. Egia da eskualdean dauden egituren berrantolaketa eta edukien azterketa egin behar dela eta horren ondoren egiturak indartu eta laguntza eman. Bailarako agente ezberdinak koordinatzeko eta jarritako helburuak lortzeko gai garela frogatu behar dugu. Orain egin behar dugun hausnarketak hau guztia kontuan hartu beharko luke, besteak beste.



### **Ez al dira gehiago kanpora lanera joaten diren gazteak kanpotik hona etorzen direnak baino?**

Denetarik dago, badaude eskualdean gelditzen direnak eta badaude kanpora joaten direnak ere. Kooperatibak modan daudela kontuan izan behar da eta enpresa handietara joatearen joera dagoela. Zergatik dauden modan? Lanpostu ziurtasunagatik, kooperatibetan irabaziak banatzen direlako... Hala ere, bertako enpresetan ere jende asko ari da sartzan. Mekanizatu alorreko enpresa txikietan eta zerbitzu enpresetan batez ere. Une honetan ezin diogu erantzun dagoen eskariari. Hala eta guztiz ere, kontuan hartu behar da baita ere hemen dauzkagun enpresa handietan kanpoko jende askok lan egiten duela.

### **Dena den, Goierriko edo Debagoienako enpresak, orokorrean, berritzaileagoak direla dirudi.**

Kontutan izan behar da hemen ditugun enpresa gehienak siderurgia eta metal alorrekoak direla eta erabiltzen duten teknologia ez dela puntakoa. Honi erantsi behar zaio inbertsioak egiteko garaian erabakitze botereak ez daudela hemen eta honek bere arriskuak dituela. Honek ez du esan nahi enpresa hauek berritzen ez direnik eta proiektuak egiten ez direnik, baizik eta ateratzen den produktuak eskatzen duen teknologia ez dela beste zenbait sektoretakoa bezain berritzailea. Produksioa hemendik kanpora bidaltzeko arriskua beti izango da. Zergatik? Burdin transformazioan eskulana merkeagoa delako hemendik kanpo. Dena den, nire ustez arrisku hori bailara guztietan dago. Kateko lana ere hemendik kanpora joan daiteke.

### **Zein da eskualdearen etorkizuna? Zeintzuk dira aukerak eta ahuleziak?**

Esan bezala, bailarako sektore produktibo handi bat garai bateko produktuan oinarrituta dago (altzairu enpresak hain zuzen) eta hori ahulezia da. Bestalde, erabakiak hemendik kanpo hartzen dira eta horrek kezka eta beldurra sortzen ditu. Goierriko kooperatibetako eta zenbait enpresa handietako erabakiak,

## *“Egungo plan estrategikoaren helburuetako bat lan eremua EA Era zabaltzea da”*

ordea, bertan hartzen dira. Datozen urteetan aldaketak etorriko dira. Trenaren inguruan egitura handiak sortuko dira eta prestatu egin behar dugu. Enpresen eta eskolaren arteko harremana estutzen eta erantzunak ematen jarraitu behar dugu, bai formazio alorrean eta baita alor teknikoan ere.

### **Beste agente batzuk ere badaude eta elkarrekin lan egin beharko duzue. Elkarlana behar bezain ona al da?**

Hobeto beharra dago. Gu formazioan, teknologia berrietan, kudeaketan, enpresetako proiektuetan... lan garrantzitsua egiten ari gara. Bertako agenteak koordinatu eta elkarlana gehiago sustatu behar dugu, nahiz eta alor batzuetan dagoeneko elkarlana dugun. Uggasarekin, adibidez, elkarlana dugu eta zenbait egitasmo

aurrera atera ditugu. Aberasgarria izan da, baina gehiago sakondu behar dugu..

### **Goierriekin dagoen elkarlana ere nahikoa al da?**

Beti egon da. Lanbide Heziketa ikastetxe kontzertatuak HETEL elkarteko partaideak gara. Goierriekin lan egiten dugu, baina ez beraiekin bakarrik. Beste zenbait ikastetxerekin ere bai. Ez diogu gure inguruko bailareei soilik begiratu behar, baizik eta EAE osoari gutxienez.

### **Urola Garaia-Goierri banaketak zentzurik ba duela uste al duzu?**

Ni Gabiriakoa naiz, Goierrikoa beraz. Niretzat ez dago inongo alderik batetik bestera. Batean lan egiten dut eta bestean bizi naiz. Ez dakit hau Urola Garaia edo Goierri izan behar den, baina elkarlana funtsezkoa da. Baliabideak, sinergiak... aprobetxatu behar dira. Bakoitzak beti izango du bere ikuspuntua, Goierrikoak gu baino hobeto dabiltzala pentsa daiteke eta esperientzia handiagoa ere badute... Ikasi dezagun eta hemen txertatu. Elkarlana ezinbestekoa da.

### **Behekoek ondo lan egiten badute baldintza hobekak dituztelako izan daiteke. Hemen ez al dugu bakoitzak bere alde-tik joateko ohitura handia?**

Behean ere bai, e! Dena den, lehen aipatu dudan bezala, kontuan izan behar da Goierri bailarako egiturak sendoak direla eta urte asko daramatzatela elkarlanean. Haiek ere bere garaian arazoak izango zituzten eta orain ere izango dituzte, baina duten eredia baliagarria da. Guk eredu hori finkatu behar dugu eta ondoren aurrera egin. Horretarako agente guztien elkarlan serioa behar da.

# Juanjo Igarzabal: Aizkorriko maratoirako prest

*Igande honetan Zegama-Aizkorri maratoia izango da. Urtero bezala, urretxuar eta zumarragar askok parte hartuko dute. Horien artean Juanjo Igarzabal zumarragarra izango da. Azkenaldian emaitza bikainak lortu ditu mendiko lasterketetan eta kros herrikoietan: duela gutxi Beran bigarren sailkatu da eta Altsasun eta Ikaztegietan garaile suertatu da.*

Juanjo Igarzabal. Berako maratoi erdian.



## **Noiztik korrika egiten duzu mendian?**

Umetatik atsegin dut mendian azkar ibiltzea. Hala, korrika egiten bukatu dut. Gainera kontuan izan behar da lan egunetan ez dudala ibiltzeko adina denbora. Bestalde, umetan baserrira joaten ginen eta behorrak ikustera joan behar zela edo bestea zela, mendian gora eta behera ibiltzen ginen beti.

## **Noiz hasi zinen mendiko lasterketetan parte hartzen?**

Duela hiru urte, gutxi gorabehera. Izugarri zaletu naiz eta oso serio hartu dut. Dena den, lehen lasterketa errepide gainean egin nuen: Behobia-Donostia. Neguan, mendiko lasterketarik ez dagoenez, kros herrikoietan parte hartzen dut. Dena den, mendian aritzea nahiago dut. Naturarekin harremanetan

egoteaz gain, helmuga zehatz batekin korritzen da. Herriari bueltak ematen ibiltzea eta Iazpiko gailurrera igotzea, paisaiaz gozatzea eta jaistea ez dira gauza bera. Legazpira ere joaten naiz, baina entrenamendu gisa soilik.

### **Ez al duzu beste kirolik egin?**

Mendian korrika egitea da gehien atsegin dudana. Eskalada, adibidez, ez du probatu. Hemengo mendietan ibiltzen naiz. Pirinioetara joan izan naiz, baina ez urrutirago.

### **Mendiko zein lasterketatan parte hartu duzu?**

Lakuntzako izan zen lehena. Garai hartan ez nuen asko entrenatzen, baina oso gustura bukatu nuen. Horrek lasterketetara zaletzea ekarri zuen. Horietako askotan parte hartzen dut. Iaz hamar bat osatu nituen. Udan, hilero bitan parte hartzen dut. Beran, Orozkon, Oñatin, Zegaman, Azkoitian, Saran, Ezpeletan, Aztirian... izan naiz. Horrenbeste lasterketatan parte hartzea ez dela komeni esaten dute, baina nik gustukoak ditut: giro ona izaten da eta ondo pasatzen dut.

### **Oroitzapen txarren bat ere izango duzu...**

Iazko Zegama-Aizkorri maratoian gaizki pasatu nuen. Azkarregi hasi nintzen eta dezente sufritu nuen. Aurten halakorik ez gertatzea espero dut. Iaz ondo entrenatu nuen, prestatzaile batekin, baina horrek berak neure buruari gehiegi eskatzea ekarri zuen. Entrenamenduetan baino okerrago aritu nintzen: bost ordutik jaistea espero nuen, baina bost ordu eta bi minutu behar izan nituen. Aurten bi hila-bete eman ditut entrenatu gabe eta ez dut erlojuari begiratzeko asmorik. Sentzazioen arabera korrika egin eta

ondo pasatu nahi dut. Iaz lasterketa bukaeran bakarrik gozatu nuen eta aurtentzen arantza atera nahi dut: zaletuen bultzada sentitu, behar den guztietan gelditu eta gustura bukatu, itzultzeko gogoarekin. 2009rako tokia ziurtatua dut eta oraindik ez dut erabaki zer egingo dudan datorren urtean.

### **Berako maratoi erdian emaitza itzela lortu zenuen.**

Bigarren postuan heldu nintzen, baina jende asko falta zela kontuan izan behar da. Maila gorenean 10 bat lagun daude eta horietako bik bakarrik parte hartu zuten. Dena den, iazko nire marka bi minututan hobetu nuela eta 2007an nire aurretik sailkatu ziren batzuen aurretik heldu nintzela ere esan behar da.

### **Emaitza on gehiago ere lortu dituzu.**

Ikaztegietakoa eta Altsasuko krosak irabazi ditut eta Betelun eta Urretxu-Zumarragan, besteak beste, postu onak lortu ditut.

### **Zein distantzietan moldatzen zara hobekien?**

20 kilometrotik gora asko sufritzen dut. 10 eta 20 kilometro bitarteko lasterketetan ondo moldatzen naiz. Maratoia oso luzea egiten zait, nahiz eta dagoeneko hiru osatu ditudan. 40 kilometrotan oso arrunta da une txarren bat igarotzea, hasi izanaz damutzea, aspertzea... Askok sufritzen da.

### **Horren emaitza onak lortzea espero al zenuen?**

Ez, baina espiral batean murgildu naiz: geroz eta gehiago entrenatzen dut, hobeto nabilela ikusten dut... Batzuetan kirolak denbora guztia kentzen du eta gelditu beharra dago. Aloñako lasterketa bezperan, nahiz eta izena emanda nuen,

parranda egin nuen. Handik bi egunetara berriro korrika egiteko gogoia nuen.

### **Zenbat entrenatzen duzu astean?**


Ahal dudan guztia. Iaz egunero. Astebitan hartzen dut atsedena. Kilometroei dagokienez, azkenaldian errepidera iriten naizen bakoitzean 20 kilometro baino gehiago egiten saiatzen naiz. Mendira joaten banaiz, hiru orduko saioak egiten ditut. Iazpi mendiaren gailurrera igotzea eta ondoren Samiño, Oleta eta Irimora joatea gustatzen zait. Astean behin egiten dut gutxienez.

### **Zerk bultzatzen du pertsona bat 42 kilometro korrika egitera?**

Korrika egitea izutien eta torero txarren kontua dela esaten da... Korrika ari naizenean asko pentsatzen dut. Hausnartu ondoren etxera oso lasai itzultzen naiz. Lasaitasun horrengatik bakarrik, merezi du korrika egitea. Ihesbidea da. Dena den, korrika egitea oso berekoa iruditzen zait. Musikaria banintz besteentzat zer edo zer sortuko nuke, baina korrika egiten ez dut ezer eskaintzen.

### **Urretxu eta Zumarragan gero eta gehiago zarete mendian korrika egiten duzuenak.**

Duela urte batzuk jendeak arraro begiratzen zigun. Egundako zaletasun handia dago eta denok elkar ezagutzen dugu. Eskualde mailako taldea sortzeko asmoa dugu. Dagoeneko horretarako bileraren bat izan dugu. Nahi duten guztiek edukiko dute taldeko kideak izateko aukera. Ez dute inongo konpromisorik izango. Eskualdeko atleta guztiak lasterketetara elkarrekin joatea eta guztiok kolore berberekin korrika egitea da helburua. Bestalde, udazkenean lasterketa bat antolatzeke asmoa dugu.



**Alex Areizaga**

Informatika

## Artxibo multzo bat bidaltzeko

Askotan Internet bidez, email batean argazki batzuk bidali nahi izaten ditugu. Tamalez, karpetak emailean artxibo bezala gehitu ezin daitezkeenaz jabetuko ginen, eta argazkiak emailera banaka gehitzea beste erremediorik ez genuen. Hala ere, badago karpetak gehitzeko modu bat. Karpeta .rar formatura konprimitzea. Honetarako, aldezturik *Winrar* programa izan behar dugu instalatua ordenagailuan (<http://www.winrar.es/>). Behin hau instalatuta, bidali nahi dugun karpeta gainean eskuineko botoiaz sakatu eta *añadir al archivo* edo *añadir a gurekarpeta.rar* ematea besterik ez dugu. Sortu dugun artxibo (*gure karpeta.rar*) berri hori bai bidali ahal izango dugula Internet bidez, barnean daraman guztiarekin batera.



**Oihane Sudupe**

Osasuna

## Energiaz beteriko udaberria

Egunak luzatzen hasten dira, tenperaturak gora egiten du, loreak loratzen dira... hemen da udaberria! Hala ere, honek guztiak ez du esanahi bera guztiontzat. Batzuek, poztasuna eta energia barra-barra somatzen badute ere, beste batzuek neke fisiko eta psikikoa, ahulezia, loaren aldaketa, konzentrazio aldaketa eta konnotazio negatiboak dituzten beste zenbait sintoma izaten dituzte. Garai honetan gorputzak dituen elikagai beharrak aldatu egiten dira; ur, bitamina eta mineralei dagokienez batez ere. Garai honetan naturak eskaintzen dizkigun barazki eta fruituetan arreta pixka bat jarriz gero, ahuldade eta nekeari aurre egiteko sekretua hortxe aurki dezakegu. Lagungarri gisa, bitaminetan aberatsak diren pilulak eta aurrez prestatutako zukuak eskaintzen dizkigute besteak beste, baina hain eskuzabala den naturak emandako produktuak hor ditugula ez dugu ahaztu behar.

## Geltokiko begiradak (II)

Umeak ez zion bere pilotari begirik kentzen. Amaren eskuek min egiten zioten besoan eta kexu zen. Bekokia zimurtzen zuen eta bi bekainak ia batu. Ezpainak estutzen zituen hitzei irteten ez uzteko bezala. Ahal balu, kosk egingo lioke parean jartzen zitzaion lehenengoari. Begiek bere pilota hain erraz galdutzat eman beharraren amorrua islatzen zuten eta loerrea irakurri ahal zitzaion aurpegian. Bederatzi urterekin egun oso bat hirian dendaz denda nekoso da. Lotsagabe malkorik gabeko negarra saldu nahi zion amari eta ostikoz gogor kolpatzen zuen trenera igotzeko lehenengo mailtxoa.

Amak azpian zuen zorua dardarka nabaritu zuen. Horrek sortu zion larritasuna ezin izan zuen ezkutatu. Gogor astintzen zuen semea heltzen zuen besoa goitik behera kolpe lehorrean, gelditzeko esanaz bezala: nahikoa da! Hala ere, mutikoak hezigaitz jarraitzen zuen. Eskuetatik ihes egin zion egoerak emakumeari. Amore eman zuen eta senarrari begiratu zion laguntza eske: egizu zerbait, zure semea ere bada eta!

Horixe bakarrik behar zuen gizonak eguna borobiltzeko. Emazteari begiekin erantzun zion lehenengo: zer nahi duzu nik egitea? Eman diguzun eguna eta gero... Bigarren, bere lekuan jartzeko moduko begirada oparitu zion semeari, goitik, bekain bat igota eta momentu batez arnasa hartzeari utzita. Hirugarren, kartoi artetik altxatzen ari zen eskaleari jarri zitzaion so. Begiak pixka bat itxi zituen, betazalekin bildu, ikusten dena aztertu nahi denean bezala.

Pilota eskuan zetorren gizona. Airera botatzen zuen, ez oso gora eta berriz jaso. Esku batekin bota eta bestearekin bildu. Pauso txikien konpasean egiten zuten aurrera pilotak eta baita berak ere. Esnatu berri baten tximak zituen, gau txar baten ondoren. Lanak zituen begiak irekitzeko eta begi ertzetako zimurretako zikina ikusten zitzaion.

Bere buruan konfiantza hartuta, geroz eta gorago botatzen zuen goma borobila, desafioka. Goran zegoenean, beherako bidea hartu aurretik geltokiko zurrumurrua isildu egiten zen. Orkestratuta zegoen. Zuzendariak musikariei



hasteko abisua emateko txanpon imajinarioa airera botatzen duenean bezala. Goia jo eta beheraka hasten zenean, berriz, haurraren, amaren, aitaren eta gizonaren begirada elkartu egiten ziren.

Pilota hori nirea da. Zerekin jolastu behar dut trenean? Ez dizut uzten. Aita esaiozu emateko. Kendu egin dit.

Itxura horrekin, zorriak eta guzti izango ditu orain pilotak. Ez bekigu asko hurbildu. Alkohol kiratsa ekarriko du eta urtetako izerdiarena. Pilota bat da, besterik ez. Erosiko dugu antzerako bat. Eta nahi badu bi ere bai.

Hau da espektakulua ematen ari garena pilotatxo batengatik. Ume hau! Pilota ziztrin horregatik hala jarri bada, ez dut pentsatu ere egin nahi bizitzan galtzea tokatuko zaion hainbeste gauzarekin zein jarrera hartuko duen. Bestalde, bere gauza guztiak horrela defendatzen baditu...

Pilota bat bederatzi urteko ume batentzat bere mundua da. Bere ondasun guztia arrotz baten eskuetan. Lapurreta kartoi artetik altxa den arlote batenetan. Azkena beldurra ematen dion honenetan.

Horrela banatu zituen periodiko saltzaileak bere kioskotik pilota airean mantendu zuten lau begiraden interpretazioak. Pi-pi-pi-pi entzun zen nasan, geltokiko zurrumurruari irteera eman ziona. Treneko ateak itxi ziren. Pilotak lurra jo zuen eta boteka jarraitu zuen nasan. Bederatzi urteko umearen sudurra ateko beirari itsatsita geratu zen. Lurrundu zuen eta eskuetatik alde egin zion pilota marrastu zuen bertan. Bazuen zerekin jolastu.

*Amaia Artolazabal*

### Igor Susaeta

*Igor Susaeta urretxuarrak Ikastolan eta Lizeoan egin zituen oinarrizko ikasketak. Ondoren Leioara joan zen, kazetaritza ikastera. Euskaldunon Egunkarian, Euskadi Irratian eta Garan lan egin ondoren, hiru urte eta erdi daramatza Berria egunkarian. Kirol arloan lan egiten du eta arraun mundua eta txirrindularitza jarraitzen ditu, batez ere. Gainera, Entzun! eta Otamotz aldizkarietan kolaboratzen du. Urola taldean jokatu zuen eta Antzuolako jubenilak entrenatu zituen. Horretaz gain, musika eta zinea oso gustukoak ditu.*

#### Zer izan nahi zenuen umetan?

Futbolaria. 12-13 urterekin kazetaria izan nahi nuen jada.

#### Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Kontzertuetara joatea, mendira joatea, lagunekin egotea, zine-  
ra joatea, lasai egotea...

#### Bizitzeko toki bat?

Urretxu-Zumarraga. Bestalde, Berlin asko gustatu zitzaidan.

#### Gustuko arraun taldea?

Zumaia gustukoa dut, jatorrak baitira.

#### Gustuko txirrindularia?

Lehen Roberto Heras. Oraingoan artean, Davide Rebellin. Izan  
ere, beti bere tokian dago eta ez du hutsik egiten.

#### Gustuko musika taldea?

Hemengoan artean Berako Borrokan taldea askotan entzun dut  
azkenaldian. Kanpokoen artean, Micah P. Hinson, Wilco...

#### Gustuko abestia?

Ruperren *Ene begiek*, BAP taldearen *Zu*, Pearl Jam taldearen  
*Black*... Abesti on asko daude.

#### Nori egingo zenioke gustura elkarrizketa bat?

Euskaldunen artean, Pako Aristiri. Hemendik kanpo,  
Balkanetako gerra pairatu zuen agure bati.

#### Nor ez zenuke elkarrizketatuko?

Nagitutako norbaiti.

#### Ilehoriak ala beltzaranak?

Denak, baina aukeratzekotan beltzaranak.

#### Egindako azken oparia?

Gutun bat.



#### Eta jasotakoa?

Zumaiako talasoterapian bainua hartzeko eta afaltzeko txartela.

#### Data bat?

Santa Isabel eguna.

#### Neska eta mutil izen bana?

Eider eta Ekaitz.

#### Zein egunkari irakurtzen duzu?

Lana dela eta, gehienak ikuskatzen ditut. Komunean eta trene-  
an *Marca* irakurtzen dut.

#### Gustuko telebista saioa?

Ez dut saio bat bereziki atsegin, baina bat esatekotan, *Rescue  
me* telesaila aipatuko dut.

#### Bereziki gorroto duzuna?

*Egi bidean* eta *Besterik gabe*.

#### Pelikula bat?

Garai batekoen artean, John Ford zuzendariaren *El delator*.  
Egunoan artean, *Grbavica*.

#### Liburu bat?

Ernesto Sabatoren *El tunel*.

#### Soinu bat?

Baxu eta bateriarekin erritmo iradokitzaile edo potenteak.

#### Usain bat?

Gustukoa den pertsonarena.

#### Janari bat?

Txipiroiak eta legatza saltsan.


#### Ura ala...

Ardoa eta garagardoa.

# Joxe Mari Iparragirre


## BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

Santa Barbara bidea z/g. - Telefonoa/fax: 943 72 14 03 - 943 72 14 13  
jmiparragirre@edunet.es - www.iparragirre.net - 20700 - URRETXU (Gipuzkoa)



### ERIZAIN LAGUNTZAILEA

Erdi mailako heziketa zikloa  
Osasun familia  
A eta D ereduak




Aurrematrikula:

Ekainaren 2tik 13ra (biak barne).

Matrikula egiteko epea:

Ekainaren 30etik uztailaren 4ra (biak barne).

Lanbide aukerak: Ospitaleko erizain laguntzailea, zaharren egoitzetan, eguneko zentruetan, lehen artapenetako laguntzailea, kontsulta pribatuetan, hortz-kliniketan laguntzailea, gaixoen zaintza.



# Herri Aldizkaria Otamotz

### ZINTZO-MINTZO ELKARTEKO BAZKIDETZA:

- Hilero Otamotz aldizkaria jasoko duzu zure etxean.
- Zure ekarpenarekin proiektu hauek bultzatuko dituzu: Otamotz, Otamotz.com, Goierriko Hitza, eskualdeko telebista, Kafe Antzokia, Mintzalaguna, Bertso Eskola, Kantu Afaria, Liburu-lanketa, Gazte Lokala, Aisialdia Euskaraz, Normalizazio Plana, hizkuntza eskubideak...
- Urtean 25 euro.

### OTAMOTZ ALDIZKARIKO HARPIDETZA:

- Hilero Otamotz aldizkaria jasoko duzu zure etxean.
- Urtean 12 euro.

-Ekarri edo bidali postaz zure datuak honako helbidera:  
Zintzo-Mintzo elkarte

Labeaga 12, behea (Goierri elkartearen ondoan)  
20700 Urretxu

-Posta elektronikoa erabiltzea nahiago baduzu: zm@euskalnet.net

ZINTZO-MINTZOKO BAZKIDE EGIN NAHI DUT		OTAMOTZ HARPIDETZA ORDAINDU NAHI DUT	
IZEN-DEITURAK		JAIOTZE DATA	
HELBIDEA		EHNA EDO NA	
TELEFONOA ETA E-MAILA		KONTU KORRONTEA	

# PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA

**GURE LANAK  
PREBENTZIOA  
DU HELBURU**




KALITATEZKO ZERBITZU ERAGINKORRA  
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia - 20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)

☎ 943 72 41 00

e-mail: administracion1@premank.com



## IRNASA EURO, S.L.

AHOLKULARITZA ETA KALITATE,  
INGURUMEN ETA  
LAN-ARRISKUEN ARLOKO  
SISTEMAK

Argixao industrialdea, 55 pabiloia

☎ 943 72 41 00 - Fax: 943 72 49 09

e-mail: irnasa@facilnet.net  
ZUMARRAGA